

**LURRALDE ANTOLAMENDU,
ETXEBIZITZA
ETA INGURUGIRO SAILA**

2199

83/1996 DEKRETUA, apirilaren 16 koa, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politikarako Kontseilu Aholkulariaren egiteko, kide eta funtzionamendu erregimenari buruzko Dekretua aldatzeko dena.

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politikarako Kontseilu Aholkulariaren egiteko, kide eta funtzionamendu erregimenari buruzko urriaren 2ko 262/1990 Dekretuaren 3. ataleko 1. idaztiak zera ezarri zuen: Euskal Autonomi Elkartearen Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legearen 30. atalean xedatutakoaren indarrez, Eusko Jaurlaritzako Sail bakoitzeko ordezkari batek eta, profesio edo lurraldearen antolakuntzarekiko arazoetan ordezkari izanik egoki iritzi zitzaizen kideek osatzen zuten Kontseilu hori.

Zenbait Sailetakoz zenbatekoa eta izena aldatu direnez, bidezko da Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politikarako Kontseilu Aholkulariaren osakera egungo sailen egiturara egokitzea, hau honako Dekretuetan dagoela ezarrita: urtarrilaren 3ko 1/1995 Dekretua, Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioako Sailak eratu, kendu eta aldatzeko eta hauen egitekoak eta ihardute-esparruak zehazteari buruzkoa, eta 139/1995 Dekretua, 1/1995 Dekretua aldatzen duena.

Egokipen honek gizarte, ekonomia, profesional edo ingurugiroari dagozkionetan eragina duten sektoreetako ordezkarien zenbatekoa ere aldatzen du.

Era berean, aipatutako aldaketek Kontseilu Aholkulariko kideen zenbatekoa murriztea dakartenez, bidezko da Dekretuaren 8. atala aldatzea, Kontseilua baliotasun osoz eratu ahal izateko beharrezko den kide-zenbatekoari dagokionean, alegia.

Ondorioz, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1996ko apirilaren 16an egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. atala.- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politikarako Kontseilu Aholkulariaren egiteko, kide eta funtzionamendu erregimenari buruzko urriaren 2ko 262/1990 Dekretuaren 3. ataleko 1. idaztia aldatzea, egun duen idazkera honako honek ordezkatura:

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politikarako Kontseilu Aholkularia honako kide hauek osatuko dute:

Lehendakaria: Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburua.

**DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN
DEL TERRITORIO, VIVIENDA
Y MEDIO AMBIENTE**

2199

DECRETO 83/1996, de 16 de abril, por el que se modifica el Decreto de funciones, composición y régimen de funcionamiento del Consejo Asesor de Política Territorial del Gobierno Vasco.

En el apartado 1 del artículo 3 del Decreto 262/1990, de 2 de octubre, de funciones, composición y régimen de funcionamiento del Consejo Asesor de Política Territorial del Gobierno Vasco se establecía la composición del citado Consejo que, en virtud de lo dispuesto en el artículo 30 de la Ley 4/1990, de Ordenación del Territorio del País Vasco, estaba conformado además de por un representante de cada Departamento del Gobierno Vasco, por otros tantos miembros, que por su profesión o representación en la problemática relacionada con la ordenación del territorio fueron considerados idóneos.

Al haberse modificado tanto el número como las denominaciones de determinados Departamentos, procede adaptar la composición del Consejo Asesor de Política Territorial del Gobierno Vasco a la actual estructura departamental que viene establecida en los Decretos 1/1995, de 3 de enero, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos y 139/1995, de modificación del Decreto 1/1995.

Esta adaptación conlleva a su vez la modificación del número de miembros que representan a sectores sociales, económicos, profesionales o con incidencia medioambiental.

Así mismo, en cuanto que las modificaciones arriba citadas conllevan una reducción del número de los miembros del Consejo Asesor, procede alterar el artículo 8 del Decreto en lo relativo al número de componentes necesarios para la válida constitución del Consejo.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en reunión celebrada el 16 de abril de 1996.

DISPONGO:

Artículo primero.- Modificar el apartado 1 del artículo 3 del Decreto 262/1990, de 2 de octubre, de funciones, composición y régimen de funcionamiento del Consejo Asesor de Política Territorial del Gobierno Vasco, sustituyéndose su actual redacción por la siguiente:

El Consejo Asesor de Política Territorial del Gobierno Vasco estará compuesto por los siguientes miembros:

Presidente: El Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente.

Bokalak:

- Ogasun eta Herri Administrazio Saileko ordezkari bat.
- Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko ordezkari bat.
- Herrizaingo Saileko ordezkari bat.
- Industri, Nekazaritza eta Arrantza Saileko ordezkari bat.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko ordezkari bat.
- Osasun Saileko ordezkari bat.
- Kultura Saileko ordezkari bat.
- Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko ordezkari bat.
- Garraio eta Herrilan Saileko ordezkari bat.
- Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Saileko ordezkari bat.
- Euskal Autonomi Elkarteko Nekazaritza Kamere-tako ordezkari bat.
- Euskal Autonomi Elkarteko Industria, Nekazari-tza eta Nabigazio Kamere-tako ordezkari bat.
- Enpresa elkarten artetik izendatuko den, Euskal Autonomi Elkartean diharduten, legez eratuta dauden eta enpresarien interesak gehienbat ordezkatuko dituen ordezkari bat.
- Sindikatuen artetik izendatuko den, Euskal Auto-nomi Elkartean diharduten, legez eratuta dauden eta langileen interesak gehienbat ordezkatuko dituen ordezkari bat.
- Ingurugiroa defendatzea eta babestea xedetzat duten elkarten ordezkari bat, Euskal Autonomi Elkar-tean diharduten eta legez eratuta dauden elkarten artetik izendatutakoa eta horien interesak gehienbat ordezkatuko dituen.
- Profesio mailan izen handia izan eta traiektoria nabarmena duen Arkitekto bat.
- Profesio mailan izen handia izan eta traiektoria nabarmena duen Legelari bat.
- Profesio mailan izen handia izan eta traiektoria nabarmena duen Soziologo bat.
- Profesio mailan izen handia izan eta traiektoria nabarmena duen Ingeniari bat.
- Profesio mailan izen handia izan eta traiektoria nabarmena duen Ekonomilari bat.

Artículo 2.- Era berean, 8. atala ere aldatzea, egungo idazkera honako honek ordezkatuta:

1.- Kontseilua osatzen duten 11 kidek gutxienez bertan egotea beharrezkoa izango da, Kontseilua baliotasun osoz eratu ahal izateko. Bestalde, Kontseilu honetako kideen erabateko gehiengoaren ematen duela zenbateko horrek.

2.- Lehen aipatu den quorum hori ez lortzea gerta dadinean, lege-indarrez egin ahal izango da batzar hori bigarren deialdiz, honako baldintza hauen pean, hau da, lehenengo deialdirako ezarritako zegoen egunean egin dadila eta Kontseiluko kideetataik 7 gutxienez egon daitezela bertan. Kontseiluko lehendakariari dagokio batzar hori egungo deneko ordua finkatzea.

3.- Ezinbestekoa izango da, Kontseiluko lehendakariak eta idazkariak edo legez horien ordezko izan daitezkeenak bertan egotea.

Vocales:

- Un representante del Departamento de Hacienda y Administración Pública.
- Un representante del Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social.
- Un representante del Departamento de Interior.
- Un representante del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca.
- Un representante del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.
- Un representante del Departamento de Sanidad.
- Un representante del Departamento de Cultura.
- Un representante del Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente.
- Un representante del Departamento de Transportes y Obras Públicas.
- Un representante del Departamento de Comercio, Consumo y Turismo.
- Un representante de las Cámaras Agrarias del País Vasco.
- Un representante de las Cámaras de Industria, Comercio y Navegación del País Vasco.
- Un representante de los empresarios, designados de entre aquellas asociaciones empresariales con implantación en el País Vasco y legalmente constituidas, que represente mayoritariamente sus intereses.
- Un representante de los trabajadores, designado de entre aquellos sindicatos, con implantación en el País Vasco y legalmente constituidos, que represente mayoritariamente sus intereses.
- Un representante de aquellas asociaciones que tengan por finalidad la defensa y protección del medio ambiente, designado de entre aquellas, con implantación en el País Vasco y legalmente constituidas, que represente mayoritariamente sus intereses.
- Un Arquitecto de reconocido prestigio y relevante trayectoria profesional.
- Un Jurista de reconocido prestigio y relevante trayectoria profesional.
- Un Sociólogo de reconocido prestigio y relevante trayectoria profesional.
- Un Ingeniero de reconocido prestigio y relevante trayectoria profesional.
- Un Economista de reconocido prestigio y relevante trayectoria profesional.

Artículo segundo.- Modificar igualmente el artículo 8 sustituyéndose su actual redacción por la siguiente:

1.- Para la válida constitución del Consejo será necesaria la asistencia de, al menos, 11 de sus componentes, guarismo que expresa la mayoría absoluta del número de miembros de este Consejo.

2.- Si el quórum señalado en el número anterior no fuera alcanzado, podrá celebrarse válidamente la reunión en segunda convocatoria, siempre que se lleve a cabo a lo largo del día señalado para el primer llamamiento y debiendo acudir, al menos 7 de los miembros del Consejo, correspondiendo al Presidente de la misma la fijación de la hora exacta en la que la mencionada asistencia deba ser verificada.

3.- Se requiere, en todo caso, la asistencia del Presidente y del Secretario del Consejo o de quienes en derecho les sustituyan.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1996ko apirilaren 16an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta
Ingurugiro sailburua,
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.

Agintariak eta Langileria**Oposaketak eta Lehiaketak****DURANGOKO UDALA****2200**

IRAGARPENA, Udal Plantila Organikoari buruzkoa (1996rako karrerako funtzionariak, lan hitzarmeneko langileak eta behin-behinekoak), Udaleko lanpostuen zerrendari buruzkoa eta 1995eko abenduaren 30eko Osoko Bilkuran onartutako 1996. urterako Lan Eskaintza Publikoari buruzkoa.

1.- 1996. urterako Durangoko Udaleko karrerako funtzionari, lan hitzarmeneko langile eta behin-behinekoen plantila onartzen da, eranskinen zerrendaren arabera. Eta guztia honako legediaren arabera: apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90 eta 104 atalak; apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legislatiboaren 127 eta 128 atalak, eta uztailaren 6ko 6/1989 Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 20 atala.

2.- Era berean, Durangoko Udalaren lanpostuen zerrenda onartzen da. Zerrenda hau goian aipatutako eranskinean agertzen da eta informazio hau biltzen du: lanpostu guztien zerrenda, bakoitzaren maila eta ezauzgarriak, hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun datak. Eta guztia honako legediaren arabera: apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90 atala; abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen 16. atala; apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legislatiboaren 127 eta 128 atalak; eta uztailaren 6ko 6/1989 Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 5. ebazpen eranskarria.

3.- Halaber, 1996 urterako Durangoko Udaleko lan eskaintza publikoa onartzen da, eta honi buruzko informazioa goian aipatutako eranskinean ikus daiteke. Eta guztia honako legediaren arabera: uztailaren 6ko 6/1989 Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 22. atala; abuztuaren 2ko 30/1984 Funtzio Publikoaren Errefor-

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 16 de abril de 1996.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Ordenación del Territorio,
Vivienda y Medio Ambiente,
FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA.

Autoridades y Personal**Oposiciones y Concursos****AYUNTAMIENTO DE DURANGO****2200**

ANUNCIO relativo a la Plantilla Orgánica Municipal comprensiva de los Funcionarios de Carrera, Personal Laboral y Eventual para 1996, relación de puestos de trabajo existentes en la Corporación, así como Oferta de Empleo Público para 1996, aprobada por Acuerdo Plenario de 30 de diciembre de 1995.

1.º).- De conformidad con lo dispuesto en los Art.ºs. 90 y 104 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, 127 y 128 del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril y 20 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, se aprueba la plantilla de plazas de funcionarios de carrera, del personal laboral y del personal eventual del Ayuntamiento de Durango para 1996, conforme a la relación que figura en el Anexo único que se acompaña al presente Anuncio.

2.º).- Igualmente, y de conformidad a lo establecido en los Arts. 90 de la Ley 7/1985 de 2 de abril y 16 de la Ley 30/1984, de 2 de agosto y 127 y 128 del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, Disposición Adicional 5.ª de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública, se aprueba la relación de puestos de trabajo del Ayuntamiento de Durango, contenida en el Anexo único anteriormente referido, comprensiva de la totalidad de los puestos existentes de todos los niveles, así como sus características, y que contiene asimismo los perfiles lingüísticos asignados a cada uno de los puestos y las fechas de preceptividad correspondientes en su caso.

3.º).- Asimismo y de conformidad con lo establecido en el Art.º 22 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, y Art.º 18 de la Ley 30/1984, de 2 de agosto, de Medidas para la Reforma de la Función Pública, en su nueva redacción de la Ley 22/1993, de 29 de diciembre, que establece que las necesidades